



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2020/21 Denboraldia

### 3. ZK.DUN ZIRKULARRA

#### PARTIDA EZ OFIZIALAK (LAGUNARTEKOAK)

Euskadiko Futbol Federazioak, Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Futbolerako eta Aretu Futbolerako Covid-19 Protokoloa onartu, argitaratu eta klub guztiei bidali ondoren, partida ez ofizialak jokatzeko gauzatu beharrekoa den prozeduraren berri eman du.


Bi talde lehiakideak estatu mailakoak diren partidei dagokienez (Bigarren B maila, Hirugarren maila, Gazteen Espainiako Ohorezko maila, Gazteen Liga Nazionala, Emakumezkoen Lehen maila, Iberdrola Erronka, Lehen Maila Nazionala, Emakumezkoen Bigarren maila, Bigarren B maila, Aretoko Hirugarren maila eta Gazteen Ohorezko maila), baimen-eskaera Euskadiko Futbol Federaziora eta Arbitroen Euskal Batzordera bidali beharko da ondorengo posta helbideetara:

- FUTBOLA: [webmaster@eff-fvf.eus](mailto:webmaster@eff-fvf.eus) eta [comitevascoarbitros@eff-fvf.eus](mailto:comitevascoarbitros@eff-fvf.eus)
- ARETO FUTBOLA: [futbolsala@eff-fvf.eus](mailto:futbolsala@eff-fvf.eus) eta [ctvafs@eff-fvf.eus](mailto:ctvafs@eff-fvf.eus)

Estatu mailako talde baten eta lurralde mailako talde baten arteko partidetan, eskabidea partida jokatu den probintziako lurralde federaziora (Araba, Gipuzkoa edo Bizkaia) bidali beharko da. Lurralde federazio bakoitzak ahalmena izango du partida jokatu eta baimendu ahal izateko behar diren betekizunak ezartzeko.

Euskadiko Futbol Federazioak "PARTIDA EZ OFIZIAL ESKAERA" izeneko dokumentu bat sortu du, partida bakoitzaren berri emateko, eta hor jasota daude elkargokideak baimentzeko eta izendatzeko baldintzak.

Euskadiko Futbol Federazioak, eskaera jaso eta egiaztatu ostean, dagokion baimena bidaliko die bi taldeei, eta, ondoren, Arbitroen Euskal Batzordeak izendapena jakinaraziko die.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

### Koronabirus egoera berezia

Gogoratu beharra dago 2020/2021 denboraldiko 2. zirkularrean xedatuta dagoena. Bertan federazio honek egindako protokoloa aipatzen da, eta, jakina, partidetan parte hartzen duten guztiek norgehiagoka ofizialetan zein ez ofizialetan aplikatu beharra dute.

Bilbon, 2020eko irailak 8an

ALLICA

KEPA ALLICA BILBAO  
Secretario General